

## Olentzeroren ituna edo xarta

---

### OLENTZERO ren mezua:

---

OLENTZERO ikazkinaren agerpenak euskal mitologian gauen laburtzea garaiaren (zolstizioa) etorrera seinalatzen du. Eguzkia iratzartzen duena, argia eta esperantzari lotua den pertsonaia da. Aspaldi ez diren garai horietan ez da ahantzi behar sua, berotasuna, supazterraren garrantzia. Bizia eta biziaren segidaren seinale zen. Olentzero egun berriak (edo *eguberri*) adierazten duen pertsonaia da.

Helburua, gaur egun ere bere mezuaren zabaltzea da.

- Egunak luzatzen dira, eguzkia gehiago agertzen da, eta argia dator,
- Neguburuaren (zolstizioaren) seinale,
- Ikatza, sua, berotasuna eta argia dakartza,
- Naturarekin bat egiten du beraz naturaren errespetuaren eta indarraren mezularia da.

### Hizkuntza:

---

Olentzero euskaraz mintzatzen da. Ez du beste hizkuntzarik emaiten, ez du beste hizkuntzarik ulertzen.

Eskola elebidunetan, erakasleek edo OLENTZEROREn laguntzaileek **itzulpena egin dezakete**, OLENTZEROK, ikasleek eta irakasleek elkar ulert dezaten.

### Jantziak:

---

Olentzero lehengo garaietako baserritar bat bezala jaunzten da. Horrela jaunzteko badira minimo batzu. Proposatzen dugu zerrenda honetan direnetarik ahal bezain bat elementu erabili:

| BEHARREZKOAK   | GEHIGARRIAK   | BAZTERTZEKOAK  |
|--|---|--|
| <ul style="list-style-type: none"><li>• Albarkak,</li><li>• Artilezko galtzerdi luzeak,</li><li>• Galtza urdin edo beltzak,</li><li>• Txamarra edo artilezko gainekoa, edo paltoa,</li><li>• Mokanesa lepoan (karrokazua),</li></ul> | <ul style="list-style-type: none"><li>• Gerriko beltza,</li><li>• Aizkora faltsua,</li><li>• Xahakua.</li></ul> | <ul style="list-style-type: none"><li>• Ordulari eta eraztunak,</li><li>• Betaurreko beltzak,</li><li>• Hiriko oinetakoak,</li><li>• Galtza modernoak,</li><li>• Autoz etortzea.</li></ul> |

| BEHARREZKOAK  | GEHIGARRIAK | BAZTERTZEKOAK |
|---|-------------|---------------|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>• Txapela (buneta) buruan,</li> <li>• Aurpegi eta eskuak beltzatuak,</li> <li>• Makila arrunta,</li> <li>• Saskia edo zarea,</li> <li>• Ikatza, zinezkoa (zikintzeko hirriskuan ...) edo azukrezkoa,</li> <li>• Pipa (erre gabe...),</li> <li>• Bizarra,</li> <li>• Kriseilua pizturik.</li> </ul> |             |               |

## Agerpena:

---

OLENTZERO ren agerpena antzetzua eta prestatua izan behar da. Beraz aintzinetik errezebitzen dutenek behar dute jakinean izan.

- **OLENTZERO agertzen eta desagertzen da.** Oihukatua da agertzeko eta desagertzen delarik agurtzen du jendea.
- OLENTZEROk ez badu laguntzailerik, bitartekari batek Olentzero eta gaineratekoen artean lotura egiten du. Adibidez eskola batetan, Irakasle batek egiten ahaldu.
- Beharrez laguntzale edo bitartekari horrek du itzulpena egiten.

## Laguntza:

---

Huna prinzipio zoinbeit, OLENTZEROREn errola untsa antzetzeko:

- Nola dator? Agertzeko eta desagertzeko **lekuak baldintzatzen du bere etortzeko moldea.** Oinez, edo Asto edo Zaldi batekin, edo Karrosa batean, edo itsasontzi batean.
- Noiz dator? OLENTZERO kantu eta deialdiekin deitzen da etor dadin eta ongi etorria emaiten zaio. Berdin lekutzen delarik.
- OLENTZERO ez da "aktore" bakarra izan behar. Denek, hurrek bistan dena, helduek, publikoak, parte hartu behar dute.
- Hurrek errezebitzen dutelarik, eskolan aintzinetik esplikatzen zaie nor den OLENTZERO eta zer den bere mezua.
- OLENTZEROREn agerpena aski misteriotsua da. Agertzen da, hurreri ekartzen duen mezua (edo opariak) ematen ditu, eta badoa.
- Zer dakartza? Hurrer opariak bainan guti eta xumeak (ez da *Bizar xuri*), edo askaria egiteko behar dutena, ikatza, goxokiak, argia (sinbolo inportanta). Berea han berean uzten du edo tokikoa pizten du.

## OLENTZEROREn izaera:

---

- Beldurtzen baita ere goxatzen ditu haurrak. Horrek harreman berezi bat sortzen du beren artean.
- Kantuak eta marrazkiak maite ditu.
- Nondik pasa den eta zer bide egin duen hunarat iristeko kontatzea maite du.
- Aski ixila da bainan esku zabala. Misteriotsua da, misterio bat atxikitzen du.
- Beltza, basa eta xumea da itxuraz bainan gisakoa eta goxoa barnean. Paradoxo horrek du misterioa entretenitzen, behar da ongi kudeatu.

## Bitartekaria:

---

Bere egonaldian OLENTZEROk bitartekari bat ukaiten ahal du. Gidatzen duen pertsona da. Bere etorrera eta desargerpenean laguntzeko:

- OLENTZEROREn etortze momentuan berriak ematen ditu. Adibidez, agertzen delarik mezua emaiten du, nundik datorren erakusten du...
- Haurrak kantuz girotzen ditu. Haurren, irakasleen, jendeen eta OLENTZEROREn arteko lotura egiten du.
- Beharrez itzulpelak egiten ditu.

**Egonaldi osoan bitartekaria pertsona berdina izaitea ez da baitezpadakoa.**

## Laguntzaileak:

---

Ez dira baitezpadakoak. Bakotxak, bere tokiko ohiduren arabera egiten ahal du. Bainan kasu, sentsu orokorra, funtsezko mezua ez du kutxatu behar. Laguntzaile horiek izaiten ahal dira:

- Asto, mando edo zaldizaina,
  - Mari-Domingi, ez sobera koloretsua,
  - Haurrak , andereñoak , erakasleak , etabar
-